

UGT INFORMA

UGT SANITATEAK LEHEN ARRETAN MURRIZKETAK SALATU DITU

Osakidetzak, aurten ere, ordutegi-murrizketetara jotzen du, udan Lehen Mailako Arretako zentroak murriztuz eta itxiz.

UGT gero eta gehiago kezkatzen dute murrizketa horiek, izan ere, urtez urte handiagoak direla ikusten dugu, besteak beste, profesionalen faltagatik eta belaunaldien arteko errelebo faltagatik.

UGTk 10 urte baino gehiago daramatza egoera hori Mahai Sektorialean salatzen, eta Osakidetzak etorkizunerako irtenbide eraginkorrak bilatu beharrean, arazoari adabakiak jartzen baino ez du jardun.

UGTk salatu du ez digutela EAGen ordutegirik aurkeztu zenbat langile izango dituzten ez dakitelako. Kalkuluen arabera, 1.000 txanda baino gehiago gera litezke estaldu gabe! Erabat pentsaezina den zerbait

Egoera horrek arazo gehigarri bat sortuko du ospitaleetako larrialdietan; izan ere, horietako batzuek, Txagorritxuk eta Gernikak batez ere saturazioa jasaten dute urte osoan, zerbitzua betetzeko langilerik ez dagoelako.

Murrizketa horiek herritarrei eragiten diete, kalitatezko arreta jasotzeko duten eskubidea eta profesionalak seriozki konprometitzen dituzte, eta dagoeneko pairatzen dituztenak baino lan-karga handiagoak sortzen dituzte urtean zehar, Osakidetzaren kudeaketa txarraren ondorioz.

Osakidetzak, gaurko Ohiz Kanpoko Mahaian, ekainaren 1etik zenbait kasutan ezarrita dagoen itxiera-egutegia aurkeztu digu. Egutegi hori beharrezkoa dela justifikatu du, eta sindikatuek edozein iradokizun egiteko prest dagoela adierazi du.

UGTk EZ DU MURRIZKETARIK NEGOZIATU NAHI.

UGT BETI ZUREKIN

UGT



Zerbitzu
Publikoak
Euskadi